JGC

ELGOIBAR'KO EUSKAL-IKASTOLA BERE ASKO BEREZIARI JARRAITUAZ NAPARRO "PRINCIPE DE VIANA" BAZKUNARI LAGUNTZEN ETA ELGOIBARKO GAZTETXOERI EUSKERAS IRAKURTEN ETA IDAZTEN ERAKUTZIERAZTEN ARI ZAIGU. GOGORTU DAIGUN ELGOIBAR'TAR GUZIOK ETA BATEZ ERE ZUEK GAZTETXUOK/

Poztutzen gera lan aldi ahtan ari geran guziok, ikuzirik Elgoibarko gaztetxoen idatzi bikañak. Orain nai deguna da idatzi dezatela aal duten guziak. Aurreragoko illean amairu idatzi ziran, oraingoan geyago, guk nako genduke datorrenean gure erriko Euskaldun guziak egitea.
Azkengo egin zan Euskal zariketan ikuzi genduan oraindik euskeras erakuzten dioten gurazoak ba dauzkagula, baño... zergatik kalean euskeras itz egiñ ez? Gaztetxuok entzun ondo au, Euskerak añako gozotazun duan izkuntzarik ez da eta batez ere gaztetxoen españetan.

x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x

Lurbira'ko ele-jakitun asko, dabiltz,
ezin arkiturik, gure Euskera-ren sustaŕa.
Oŕegatik, bere seme-alabok, beartuak gaude,
mintzatzera, asaben izkuntza txit zaŕa.........!

Zeiñ pozgaŕia dan Abenduaren 5-ean bezela-,
euskeras mintzatzen, neskatil-mutiko pilloa:
Sariketa artan izan ziñaten dan-danok,
entzun zuen abenda-anai baten, txalo beroa!.-

x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x

Andere, anderetxo...! eunak erozi nai merke?
ELORZA AIZPA'gana, ziur joan zeniteke.
Eta, zuek, gizonok, alkandora edo xeŕenda nai?
Euren salokira oñak zuzenduaz, eldu lasai!.-

x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x

Baldin ba zaude, jazki bat egin nairik,
Laister josiko dizu ERREZABAL'ko Joxe Mari'k.
Joskintzan, ba-du nunbait, jakintazun ugari,
bada, bere erti-lana, egoki datorkio soñari!.-

Luken'ek

x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x

Elgoibartik Azillan 12 an

Ni oraindikan ozo txikia naiz eta eskribitzen ez dakit ondo, erderas obeto ikastolan erakuzten digulako baño amatxok ezan dit berak lagunduta zerbait egingo detala eta oŕegatik oraiñ kantatuko dizuet ipui txiki bat.
-Emango al diazu kilo bat ezne?
-Eznea ezta pixatzen, eznea nenea neuŕitu egiten da.
-Orduan ekatzu -METRO-bat...
Eta oriñ bukatzera nua. Agur eta bezte bat arte.
Muxika eta Laŕeategi tar AMAYA
7 urte

Elgoibartik Abenduan

Gaur ez dago eskolarik da pentzau dot eskribitzia, euria ari eta aitari poza emateko ta gañera beztela jaixan ez dit emango pagarik umien teatrora joateko lenguan bezela.
Agur eta urrengo arte.
Etxeberia tar Rosa Mari 7 urte

- - - - - - - - - - - - - -

Ezin txapel batean bi buru

x x x

Gabonetako izarra eta tabernako neskatxaren itza, berdiñak

x x x

Elgoibarren I959 ko Abenduan

Nere aita ta ama Ermukuak dira da ango izketea egiten dabe, orregatik eitxen dogu nik eta nere anáak ango iketia da emengua ere bai. Guk dendia daukagu da zarritan eskolatik etortzen gerânian, batian karamelotik eta beztean pazteletik ero bohboitxik amaren ixilean artzen degu. Da bazkaltzeko orduan izaten dira kontuak, au ez det nai eta beztea ez det nai. Baña tajadatik izillejaten dogu. Ni nabil Milagrosiaren eskolan da pozik joaten naiz ikastera. Da nere anaya praillietan da oso pozik juaten da ere.

Amesti tar Elizabete 9 urte

& & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & & &

Elgoibarren I959 ko Abenduan

Nere kauta txarra da eta dendara joaten da zeozer arrapatzera eta aitak ezaten dio, nora zoaz? eta etorri egiten da. Igandean zortzi egun igaro dira nik txori polit bat billatu nuan kalean. Kanariua izan beardu, azi da pixkat kantatzen eta oso pozik gaude etxeko guziok berari begira, da nik ekarten diot berari karduak da ederki jaten ditu gañera, alpizte da ura zarri ematen diogu gañera. Urrengo arte

Amesti tar Iñaki 7 urte

& & & & & & & & & & & & & & & & &

Elgoibartik Abenduan

Badakit gaizki idatziko detana eta barkatu gaur da lenengo aldiz ádazten det euskeras eta oraiñ ezan nai nuke bizitza, goizean jaiki eta apaizari lagundu Meza ematen eta gero eskola edo ikastetxera eta seiretan musika ikastera eta orrez gañera aztian bi aldiz aurrezkua ~~ikasten~~ eta bezte euskal dantzak ikastera.Oneki bukatzera nua eta Agur, urrengo arte

Elustondo tar Iñaki 9 urte

Elgoibartik Azillan I2 an

Gaur da bigarrengo aldiz euskeras idazten dotela. Oso azti gutxi izaten det ikastolan egoten geralako egun guztian, baña, alegindukо naiz zerbait egiten. Ni nabil erderas ( Escuela de Formación Profesional) deitzen zayon ikastolan da oso pozikan nago irakasle onak ditugulako, batzuetan aztintzen gaitue baño, zerbait bear ere bai gu zuzen ibiltzeko. Larubat arratzaldean jai izaten degu, baña egualdi ona danean fubolian egiten degu. Sei ekipo gaude ta onela egun batian batzuek da beztean bezte batzuk jokatzen degu. Joan dan aztean penatxo neban galdu gendulako, baño, aurreragokoan irabazi gendun da amak ezan zidan beti ezin leikela irabazi, galtzen ere ákazi egin bear dala, baña ori ez da errexa. Orain barkatu guztiok bukatzera noa, bada nere azmoa luzeagoa egiteko ~~xxxxx~~ zan baña, lotara joateko ordua da ta Agur urrengo arte.

Zuen lagun

Muxika eta Larreategi tar Mikel Aingeru I2 urte

x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x-x

Elgoibartik Azillan I2 an

Berriz ere emen naiz ni zeueri zerbait ezateko azmoakin bada bitartean euskeras idazten ikasten det ba nik orain arte ez det zekula egin. Irakurri bai, bada etxian dauzkagu euskerasko liburu batzuek eta nere aitak eta amak nai izaten dabe noizean beiñ pixkat irakurtea. Orain kontatuko dizuek liburu aietako baten irakurri nuana. -INBIRIYA- Joxe Pello lazai utza,da. Lanetik ere bidaldu egin dute eta berak ezango digu zergaitik.

-Zer gertatu zaik Joxe Pello? -¿ Ba! Zea...Kontramaixua.... - Zer izan dezute ba? -Badakizute kontramaixuak zer diran. Beiñ ere ez dute lanik egiten. Eskuak bizkarrean ara-onera ibilli bezterik ez dute egiten.... Eta zer? I Inbiriya. Norbait zartzen zanian, ni artzen omen ninduen kontramaixutzat. Ezan bezela. ¡inbiriya bezterik ez, inbiriya. Muxika tar M.ª Isabel

Polita alda? Urengoan geiago ezango dizutet. Agur eta bezte bat arte.

Elgoibartik Azillan I2 an

Ni oraindikan oso txikia naiz eta eskribitzen ez dakit ondo, erderas obeto ikastolan erakuzten digulako, baña amatxok ezandit berak lagunduta zerbait egingo detala eta oregatik oraiñ kontatuko dizuet ipui txiki bat.

EZNE BILLA - -Emango al didazu kilo bat ezne? -

-Eznea ez da pixatzen, eznea neurtu egiten da.-

- Orduan ekatzu ~~xxxxx~~ )METRO BAT....

Eta oraiñ bukatzera nua. Agur eta bezte bat arte.

Muxika eta Laŕeategi tar AMAYA 7 urte

Mendiko txoriak mendian poz-- Ezkontza txarak dakarzki, gosea ta makilada azk

Elgoibarren I2-I2-1959

Lenguan egin neban karta bat oin eitxea nua beztebat eman zielako targeta bat polita. Azko koztatzen jat euskeras eskribitzia baña berriz ere oso poziknoa eskribitzera. Kopin bat ekarri ziran tiak eta erropak eitxea nua soñeko bat eta zapatak, txapela, galzetiñak, jertzibat eta azpikogonabat.

Agur, uŕengo arte.

Etxebeŕia tar Belen 8 urte

Gizonak ezkontzean buru auste bat uzteh du, eta milla artu

Elgoibarren

Nere izeko maitea: Selan saos? gu danok oso ondo atzo Gondenian baskaldu genduan eta gauza politak ekarridegu isekoxxx. Laster sure eguna da Mari Juli na eta iseoo Juanita da aita Santuarena ere bai. Sure eguna ondo igaro eta sorionak ugari opa dizugu. Egunero juaten naiz escolara pos-posik monjak oso onak dira eta nik escolan asco icasten det. Atzo Maria Milagrosen etxian izan giñan eta icusigenduan zinia da agertu san Charlot, chakur bat Pluto isena daucana da patxia Donal. Maria Cruz jauzi egin zan eta arpegia uŕatusan. Agur iseco Miren urengo arte ondo igaro. Lastan asco-asco sure illobak.

Maria Paz Garcia Conde

Eskondu arte estu eta andik aurrera estuago

Abenduan Elgoibarren

Gaur da Jabierko Franciscoren eguna eta biar lenengo oztirala eta oŕegatik gaur konpezatzen izan naiz biar Jauna artzeko nere eskolako lagunekin batian. Gaur maixuak ezan digu oso ipuiñ polita ezin dizuet ezan eta ikasten detenian ezango dizuet. Ba dator Jesus Jayo zan eguna oso pozik nago tuŕoia piskat jateko. Agur uŕengo arte beti zuen lagun.

Aspiazu ta Lasa tar Pedro Mª 8 urte

Gudara joateakoan, otoitz bat, itxazora ertetzean; bi; ta ezkontzean, iru

Elgoibartik I5 - I2 - 1959

Udia pazada ta etoŕi zuigu negua, nere lagunak juan zaizka zinera, udan oso ondo igarotzen ditut jayak, aitarekin igotzen ditut mendiak, zari bat ere badet irabazia amabost mendikoa, nere aita oso mendizalea da eta neri ere ozko guztatzen zaida. Juandan Dagonillean ogeitabatean juan giñan etxeko denok Urkiolara bedatziuŕenbat San Antoniori egitera eta an an igaro nituan egun zoragaŕiak eta pozez zoratzen nago allegaudeiñ datoŕen udabeŕia.

Agur eta uŕengo arte.

Elustondo tar Miren Karmele I2 urte

X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-X-

E U S K E R A

Izkuntz edeŕa gure euskera/
beste bat ote luŕak obia? /
izkuntz goxoa, garbi naroa, /
Aitoŕek eredutzat utzia. /

Amak il aurretik esan zidan: /
Seme, euskeras mintza zitia, /
euskeras nai det, izan dedilla/
zure otoitz, zure eskaria. /

Bai Ama, euskera
izango da
nere izkuntza, nere
eresia
euskera izango beti
ama,
nere maita, nere guraria.

Laugafen ofialdea

Abenduan Elgoibafen

Il onen 6 an Elgoibartafak jokatu zuten Irun'en Real Unión'en kontra, bañan gelditu ziran eta gu pozik punto bakar ofekin. Datofen igandean jokatuko dute Billafranca ren komtra, ta uzte det etxekoak irabaziko dutela. Billafranca ezta ekipo efexa irabazteko beti ondo jokatu izandu Lerunen. Billafranca da zafenetako bat Elgoibafekin irugafen taldean eta partidu azko jokatu dutenak euren artian eta oso ondo ezagutzen dia alkar.
Eta geyago ezer barik agur eta ufengo arte Azpiazu tar Xabier I3 urte

Urte befi, urte zar, Martzelino beti pika zar.
Ezanak ezan, ta urte befi on!

Elgoibartik Abenduan
Banator ni ere zuen artaldera 8 urteko nezkato muxu gofi bat naiz baño nere margo gofiak ez dira Jose Drogueruanian erozitakoak...taloa ta eznea gogotik jandakoak baño. Gabonak laister ditugu ta Jesus aurtxoarentzat zeazka antolatzen azi bear gera, etxerik etxe abesti polit auek abeztuaz ibiltzeko.

x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x x

Itzartu etxekoak
Etofi lenbailen
Ume txiki polit bat
jayo da Belenen
Negafez topau dogu
txabola zar baten
Berantzat astaturik
Ez al dago emen?
Artetxe tar Eskarne 8 urte

x x x x x x x x x x x x x x

UMEERI KEZKA EDO GOGO GEYAGO ZORTE ERAZI ETA GURE ORIAK GEROATA ZALE GEYAGO IZAN DEZAN UMEENTZAT AZMAKIZUN BATZUK NAI DITUGU EMEN JARI ETA ONDOREN IRAKUFI BERTARAKO ZER IZAKERA BEAR DITUZTEN.

ARA EMEN BERTARAKO ONARIAK (bases)

Iª Euskeras idatzi edo karta egitea beafekoa da, zarikata ontan partzeko.

2ª Idatziarekin batera bidaldu bear dira gure azmakizunenerantzunak, baña, beti bezte ofi baten.

3ª Baldin bat baño geyago ba dira igafi diotenak, zozketa egingo da igafi diotenen artean.

4ª Oraiñgo zaria izango da idazkortz edo pluma (Muxika tar Yulen'ek emana

5ª Bi ofitan idatzi berdiñak bidaldu eta azmakizunena bezte ofi baten.

6ª Zakelean (sobre) naikoa da UMIEN-DEIA jartea eta zuzenbidea EUSKAL IKASTOLA edo "ONGAFI" BAZKUNA

7ª Baiñere ez dezute bidaldu bear zuek zuzen Irmñara. Ori EUSKAL-IKASTOLAK egingo du.

OARAK: Emen bear Gárrankofi eta abar eta UMIEN zariak aundiago izan deitezen emaitzak (donativos) artzen ditugu lauefielekotxo bat izanda ere.
Baldiñ ba dago ofi au artu nai duena bidaldu dezala bere zuzenbidea.

BASES PARA EL CONCURSO

Iª Se deberá escribir la carta de rigor en VASCO.

2ª Adjuntas a la citada carta deberán incluirse las respuestas a las preguntas formuladas, todas ellas escritas en VASCO y en papel aparte.

3ª En caso de ser varios los acertantes se procedera al sorteo entre los mismos del premio asignado.

4ª El citado premio consistira en esta ocasión en una magnifica PLUMA ESTILOGRAFICA. Donada por don Julian Mugica.

5ª Las cartas deberan ser dirigidas por duplicado junto con la hoja de respuestas a la ACADEMIA DE LENGUA VASCA o al "ONGARI"

7ª En ninguna forma se deberán enviar a PAMPLONA, pues la organización se encargara de su envio.

Nota: Para sufragar los gastos de organización se admiten donativos aunque solo sea una pesetilla.
En caso de que haya alguién que asi deseandolo e inadvertidamente no recibe esta hoja, deberá pasar aviso a la ORGANIZACION la cual le complacerá. Esta hoja se reparte gratis.

ARA ONDOREN AZMAKIZUNAK

1ª. Iru katuk iru xagu jaten iru minitu egiten dituzte.
Zenbat denpora bearko dute 100 katuk 100 xagu jaten?.

x x x

2ª Autobus batek irtetzen du Elgoibarren eta gelditzen da iru lekutan bakarrik. Lenengoa PARAYANEN eta errial bat kostatzen da. Bigarren aldiz gelditzen da AZKARATEN eta errial bi kostatzen da. Irugarrena eta azkena egiten du AZKOITIXAN peseta bat kostatzen da. Eta gizon batek Elgoibarren zartu eta beriala ematen dio peseta bat itzik egin gabe eta cobradoriak AZKOITIRAÑAKO txartela ematen dio. Nola liteke ori?. Itzik egin gabe nun igarten dio cobradoriak Azkoitiraño juan bear duena gizon ez ezagun ura?

3ª. Zenbat urte dauzkazuzen ipiñi eta zure aitak zenbat dituan ere bai. Eukiko al dituzu beiñere aitaren urte erdiak? Zenbat urte dauzkazuzenian?.

4ª Bai al dakizu zeiñ izaten dan emakumeak itzik gitxien egiten duten illa? Ia ezan...

Ogia ematen ba diok iñoren txakurrari, geldituko aiz ez txakur eta ez ogi.

Elgoibarren Abenduan

Il onen seian jai alai bat izan genduan edo ozpatu genduan Odeon antzokian. Ai, ze perriak egin genduan Joxe Zubiaurre'kin bere baker izketa edo txizti ak kontatu zigunian, baita ere azko guztatu zitzaidan dantzariak batez ere bakarrik dantzan egin zuana edo Txomiñ. Ni ainaiz ikasten aurrezkua baña, iriztea zait zekula estetela olan dantzan egingo. Gero izan ziran bertzolariak, abeslariak eta txistulariak bukatuaz "AMA-EUSKERA" deitzen dan obra batekin. Ai zeiñ ederra eta zelako ederki egin zuten. Agur eta bezte bat arte

Muzika tar Eramon 9 urte

Abenduaren 5-ean egin zan EUSKAL zariketan uzte baño ume geyago izan genduan eta ez makurrak ere ala jaiña ba dago errezteziuna ugari oraindik. Ara ondoren atal bakoitzean iru aurrengo atera zutenen izen abizenak.

5 Urte artekoetan. Lenenengoa Maria Trinidad Zabaleta. Bigarrena Manu Conde Astigarraga. Iñaki Mugika Lacha izan irugarrena.

10 Urte artekoetan. Lenengoa Itziar Elorza-. Bigarrena, Txomin Mugika Lacha. Eta irugarrena. Maria Izaskun Aizpitarte.

15 Urte artekoetan. Lenengoa Mikel Aingeru Mugika-. Bigarrena, Mari Loli Urquidi eta irugarrena Maite Ajuria.

Eta bukatzeko ezkerrak ematen dizkiogu au ateratzen lagundu diguten guzti ori. eta batez ere ELORZA AIZPAKO ERREZABAL sastria LOREN Larreategi JULIAN Mugika eta abar auen laguntza gabe ezingo genuelako argitaratu orri auek eta beste norenbatek laguntza ezkeintzen baldin ba digu oso pozik artuko degu

UMIAK ETORRI DEITEZELA DATORREN ILLAREN 8 AN EUREN ZARIAK JAZOTZERA ILLUNTZEKO SASPITA ERDIETAN EUSKAL IKASTOLARA

Ekarri al dituzuten lagun guziak ara